

1. zatia

2
0
1
4
/
1
5

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

LEHEN HEZKUNTZAKO 3. MAILA

MATEMATIKAKO GAITASUNA

Izen-deiturak:

Ikastetxea:

Ikastaldea/Ikasgela:

Herria:

Eguna:



Probaren lehen zati hau egiteko 45 minutu dituzu.

Argibideak

Lehen ariketan, irakasleak ozenki irakurriko ditu problema batzuk, bata bestearen atzetik eta denbora utziko dizu zuk erantzuna dagokion hutsunean idatz dezazun.

Ondoren, hainbat galdera mota aurkituko dituzu. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte, aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Zenbat dira $2 + 5$?

- A. 2
- B. 6
- C. 7
- D. 11

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Zenbat dira $2 + 5$?

- A. 2
- B. 6
- C. 7
- D. 11

Beste galdera batzuetan, aldiz, puntuekin adierazitako tartean erantzuna osatzeko eskatuko dizute:

Esan zenbat angelu eta zenbat alde dituen triangelu batek.

.....

1. Kalkulu mentaleko ariketa.


	Erantzuna
A kalkulua	
B kalkulua	
C kalkulua	
D kalkulua	
E kalkulua	
F kalkulua	

2. Beñatek auto bat ikusi du aitonaren garajejan.
Zein da matrikularen zenbakia?

- A. Bi mila bederatziehun eta lau
- B. Bi mila bederatziehun eta hirurogeita lau
- C. Hogeita bederatzi mila eta hirurogeita lau
- D. Hogeita bederatzi mila seiehun eta lau



3. Osa ezazu zuriz dagoen laukia eta jakinen duzu zenbat kilometro markatzen dituen aitonaren autoko kilometro-kontagailuak.



4. Ordena itzazu, handitik txikira, auto hauen matrikuletako zenbakiak.



--	--	--	--

Zenbaki handiena → hurrengoa → hurrengoa → Zenbaki txikiena

5. Idatz ezazu auto honen matrikula, kontuan izanik:

- 4 zifratako zenbaki bat da.
- Hamarrekoen zifra hiru da.
- Milakoen zifra hamarrekoen zifraren bikoitza da.
- Beste zifrak 1 dira.



6. Osatu serie hau:

7650	7850
------	------	------	------	------

7. Osatu hutsuneak ondoko kenketan:

$$\begin{array}{r} 329\boxed{} \\ - \boxed{}15 \\ \hline \boxed{}5\boxed{}3 \end{array}$$

8. Egin ezazu ondoko biderketa:

$$\begin{array}{r} 1687 \\ \times \quad 7 \\ \hline \end{array}$$

9. Leire eta Mikel kromoekin jolasten ari dira eskolako jolastokian. Leirek 68 kromo ditu, Mikelek baino 15 gehiago. Zenbat kromo ditu Mikelek?



Erantzuna: Mikelek kromo ditu.

10. Mikelek album bat osatu du. Albumak 136 orri ditu eta orri bakoitzak 8 kromo. Zenbat kromo ditu Mikelek bere albumean?



Erantzuna: Mikelek kromo ditu.

11. Albertok 238 kromo ditu. Bere urtebetetzean 15 poltsa oparitu dizkiote kromoekin, eta poltsa bakoitzean 6 kromo daude. Zenbat kromo ditu orain?

Erantzuna: Albertok kromo ditu.

12. Irakasleak arbelean ondoko zenbaki deskonposaketak idatzi ditu. Zein da zuzena?

<p>A</p> $73051 = 70000 + 300 + 50 + 1$	<p>B</p> $73051 = 7 \text{ HM} + 3 \text{ E} + 5 \text{ H} + 1 \text{ U}$
<p>C</p> $73051 = 7 \text{ HM} + 3 \text{ M} + 5 \text{ H} + 1 \text{ U}$	<p>D</p> $73051 = 7000 + 300 + 50 + 1$


- A. A arbelekoa
- B. B arbelekoa
- C. C arbelekoa
- D. D arbelekoa

13. Arbelean 3. mailako ikasleek ekarri duten gosaria idatzi dugu. Bete ezazu jarraian dagoen datu taula.

fruta	ogitartekoa	fruta	jogurta	fruta
ogitartekoa	fruta	fruta	ogitartekoa	jogurta
gailetak	ogitartekoa	fruta	jogurta	gailetak
ogitartekoa	ogitartekoa	gailetak	fruta	fruta
jogurta	fruta	ogitartekoa	ogitartekoa	gailetak

3. mailako ikasleen gosaria			
Ogitartekoa	Fruta	Gailetak	Jogurta
Ikasle kopurua →

14. Ondoko grafikoan patioan jolasean ari diren ikasleen kopurua agertzen da. Zenbat ikasle ari dira jolasean, osotara?




Erantzuna: Osotara, ikasle ari dira jolasean.

15. Eskolako lorategian ondoko loreak ditugu:

Lore kopurua: →

Loreak			
Arrosak	Krabelinak	Geranioak	Bitxiloreak
14	7	10	8

Markatu lore kopurua ondoko barra grafikoan:



HEMEN BUKATZEN DA LEHENENGO ZATIA

**Ez pasa hurrengo orrialdera
irakasleak esan arte.**

2. zatia

2
0
1
4
/
1
5

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

LEHEN HEZKUNTZAKO 3. MAILA

MATEMATIKAKO GAITASUNA




Probaren bigarren zati hau egiteko 45 minutu dituzu.




16. Zurgin batek ondoko leihoaren neurriak hartu ditu. Zenbat zentimetroko zabalera du?

- A. 38 cm
- B. 308 cm
- C. 380 cm
- D. 3800 cm




17. Zure ustez, zenbat metroko luzera du zurginaren furgonetak?

- A. 2 m
- B. 5 m
- C. 20 cm
- D. 50 cm





18. Koldok goizean 850 m egin ditu oinez, eguerdian 700 m eta arratsaldean 450 m. Zenbat kilometro egin ditu osotara?




Erantzuna: Koldok km egin ditu oinez.

19. Andereñoak lau ontzi mahai gainean jarri ditu. Ordena itzazu ontziak edukieraren arabera, txikienetik handienera (jarri zenbakia 1etik 4ra).



20. Andereñoak ontzi batzuk jarri ditu mahai gainean. Zein da ontzi guztien edukiera, osotara?



- A. Lau litro eta erdi
- B. Bost litro
- C. Bost litro eta erdi
- D. Sei litro

21. Ikerrek 28 kg pisatzen du eta bere arrebak, Maddik, bikoitza. Zenbat kilogramo pisatzen dute bien artean?

Erantzuna: Bien artean kg pisatzen dute.

22. Maddi eta aita arratsaldeko sei eta erdietan atera dira bizikletan ibiltzera. 45 minutu eman dituzte. Zein ordutan itzuli dira?



Erantzuna:e(t)an itzuli dira.

23. Tuteratik Zaragozara joan nahi dugu. Hauxe da trenen ordutegia:



	Tren mota	Irteera ordua	Iritsiera ordua	Bidaiaren iraupena
1	ERREGIONALA	06:35	07:33	58 minutu
2	ERREGIONALA	08:39	09:37	58 minutu
3	ALVIA	10:46	11:31	45 minutu
4	ERREGIONALA	10:50	11:48	58 minutu
5	TALGOA	11:50	12:19	39 minutu
6	ERREGIONALA	15:21	16:19	58 minutu

Tuteratik 9:00ak baino beranduago atera nahi badugu eta Zaragozara 14:00ak baino lehenago iritsi nahi badugu, zenbat tren har ditzakegu?

.....

Zein da trenik azkarrena?

.....

Zenbat denbora gehiago kostatzen zaio Erregionalari Talgoari baino?

.....

24. Iker, Maddi eta aita supermerkatuara joan dira. Erosketa ondorengo txanpon eta billete hauekin ordaindu dute. Zenbat ordaindu dute dute?



Erantzuna:€ ordaindu dute.

25. Iker, Maddi eta aita bonboi hauek jatera doaz. Zer forma dute bonboiek?

- A. Kuboa, konoa eta esfera.
- B. Karratua, konoa eta esfera.
- C. Kuboa, konoa eta zirkulua.
- D. Karratua, konoa eta zirkulua.



26. Hementxe duzu Iruñeko zati baten planoak. Zein kale dira paraleloak?

- A. Nafarroa Beherea eta Karlos III.a
- B. Karlos III.a eta Amaiurko Gaztelua
- C. Paulino Caballero eta Amaiurko Gaztelua
- D. Karlos III.a eta Paulino Caballero



27. Hirian forma karratua duen lorategi bat dago. Bana ezazu lorategia 4 hiruki berdinetan.



